

Arratsalde on eta zorionak, Amurrioooo! Arratsalde on, arabarrok eta txoko guztietatik gerturatu zareten euskaldunok! Gora AEK! Gora Korrika!

Plazak hutsik geratu zitzaizkigun, baina hemen gaude, berriro ere kalean, plazan, errepidera salto egiteko prest. Heldu da momentua, 22. tantoa egitekoa, 22. Korrika abiatzekoa! Euskaraz garela eta izan nahi dugula aldarrikatzeko unea.

Itxi begiak eta amestu nirekin; irudikatu herri bat mugimenduan, herri koloretsu bat, uniformerik gabea, herri bat aurrerantz joaten pausoz pauso. Sentitu ondokoaren arnasa, entzun haren oinak lurraren kontra, "ttakun-ttakun", txalaparta inprobisatua... Zoruak dar-dar egiten du, milaka urratsen azpian, bizirik; elika gaitezen gure aurrekoek zapal dutako lurraren indarrak. Herri bat mugimenduan; horixe gara, herri bizia eta euskaraz. Eta ADI!: ametsak gauzatu ahal ditugu, Korrika jaio eta 42 urte geroago hemen gaude-eta!

Eta, Korrikak bezala, geuk ere ezin dugu atzerapausorik egin euskararen erronkan, hizkuntza-eskubideetan. Euskaraz biziko bagara, geure hizkuntzaren ezagutza unibertsala bermatu behar dugu, eta ORAIN eraiki behar ditugu horra eramango gaituzten bideak. Beraz, EKIN! Aldeko hitzak hutsalak dira ekintzez erditu ezean: egin dezagun jauzi konpromisoetara, jendarte osoa elkarrekin, nork bere tokitik. Lagun gaitzate horretan administrazioetatik bideratu beharreko hizkuntza-politikek; abia ditzatela ORAIN hizkuntza-politika egokiak euskarari prestigioa emateko eta lehenesteko. Eta horiek trinko bihur ditzatela, blindatu, ez gaitezen esna bihar gaur baino atzerago epaile edo lege ezjakinen kolpeen erruz.

Bitartean, guk, AEKn, berretsi nahi dugu geure lanean aurrera egiteko konpromisoa. Izan gaitezen euskararen beharginak, XX. mendeko AEK-ko beterano haien ametsaren eskutik; jarrai dezagun aurrera XXI.ean ere, herritarrak euskalduntzeko eta euskaraz bizitzeko aukerak zabaltzen, ekinaz, hemen ondoan, Tubacexen eta beste hainbat lantokitan erakutsi dizkiguten kemen eta duintasun berberetz. Segi dezagun nonahi: Amurrioko euskaltegitik Amikuzeko gau-eskolara, Tafallako euskaltegitik Zallakora, Oreretara edota Trebiñuko eskoletara...

Baina guk bakarrik ezingo genuke aurrera egin: ez gara super-heroiak, ez dugu super-botererik. Zuen bultzada eta babesa ezinbesteko ditugu. Horregatik, eskerrik asko, mila esker, esker aunitz, Amurrioko plaza honetara bildu zaretenoi, dagoeneko errepide zein kaleetan Korrikaren zain zaudeten guztioi, gure ikasle proaktiboiei, halabeharrez urrutian gertu izango zaituztegunoi, guri begira ari zaizkigun beste herrialdeetako Korrika ahizpei, eta, batik bat, hitzetatik ekintzetara jauzi egiteko konpromisoa hartu eta hartuko duzuen denoi!

Entzun dezatela Donostian abiatzear garela, HitzEKIN, guztiok elkarrekin!!